



Euskalduntzea krisian? Hurbilketa soziolinguistikoa

1 990ean, Alfabetatzearen nazioarteko urtea ospatzen zela eta, zenbaki monografikoa eskaini zion *Jakin* aldizkariak gai honi: «Euskalduntze-Alfabetatzeak bidegurutzean».

Urte batzuk pasatu dira orduz geroztik, baina gaiak behintzat ez du gaurkotasunik galdu. Azken aldion makina bat iritzi eta gogoeta agertu da haren inguruan, krisiaz eta jaitsiera azpimarratuz.

Gaurko kezka nagusia matrikulazioaren jaitsiera edo beherakada da, jada orduko zenbaki hartan ere seinalatu zena, bestalde. EAEko zifren arabera, 1986-87 ikasturtean 46.487 ziren euskaltegietakako ikasleak. Gero, urtetan, oraintsu arte, 40.000 ikasle izan omen dira urtero euskara ikasten aritu izan direnak. 2000-01 ikasturtean 37.141 ziren ikasleak. Eta aurtengo ikasturtean: 33.993. Bistakoa da jaitsieraren handia: 1986-87 ikasturtean baino %27 gutxiago aritu ziren iaz euskara ikasten, 12.494 ikasle gutxiago, alegia. Azken aldian, gainera, badirudi azkartu egin dela jaitsiera hori: iaztik hona behintzat, %8,5 jaitsi da. 3.148 ikasle galdu dira urte batean.

Bada jaitsiera! Zer adierazten du horrek?

Beheranzko joera horren irakurketa soziologikoa egin nahi dugu. Adituek, arduradunek eta kezkatuek era guztietako arrazoiak aipatu dituzte: sozialak, ideologikoak, politikoak, laboralak, administratiboak, metodologikoak,

sektorearenak. Hitz bitan, gizarteari dagozkionak eta sektoreari dagozkionak. Guk hemen jakin nahi duguna da zer gertatu den euskal gizartean, Euskal Herrian, 70-80ko hamarkadetatik gaurdaino, hain zuzen ere beherakada hau esplika dezakeen zer. Galdeketa hau euskalduntze eta alfabetatzearen errealitatea oso ongi ezagutzen duten adituen artean banatu dugu.

Ondoren, aditu horiei egin dizkiegun bi galderak aurkezten ditugu:

- 1.- Zer gertatu da urte hauetan erdaldunak euskara ikastera joan ez daitezen eta euskaldun alfabetatu gabeak alfabetatzera hurbil ez daitezen? Zer aldatu da gure gizartean?
- 2.- Euskal gizartea euskalduntzea helburu, zer egin behar da? Zer garrantzi dute eta nola eragin behar dute helduen euskalduntzeak eta alfabetatzeak Euskal Herria euskalduntzeko prozesuan?



Dionisio Amundarain

1.- *Jakin*-ekoe egin dizkidaten galde bien inguruan, aspaldidaniko nire bizpahiru ideia plazaratzeko parada ikusi dut.

Euskalduntze-alfabetatze mugimenduaren (hemendik aurrera mugimendua) beheranzko joera ez da gaur goizeko gauza: 70eko hamarkadaren azken aldera jadanik nabaritu genuen hori; hamarkada horretako hirugarren laurdeneko boomaren ondoren, hasia zen beheranzko joera.

Horren arrazoiak askotarikoak izan ziren eta dira, noski. Neure susmoen arabera bat aipatuko dut.

Frankismoaren hilzorikoan buru-altxatze zoragarria gertatu zen Euskal Herrian, eta altxatze horren alderdietako bat euskararekiko atxikimendu bizia izan zen. Jende askok jo zuen euskara ikastera nahiz alfabetatzera. Integraztailea zen motibazioa.

Horren inguruan, puztuki handia puztu zen gure gizartean. Baina hizkuntza bat ikastea gauek goizera lortu ezin den gauza dela ikusirik, husten hasi zen puztokia. Ikasle askoren utziera ez ezik, argiro agertu zen irakasle askoren norabide-aldaketa ere. Honen adierazle eta adibide da hau: astean lau edo sei ikastordu hartuz edo emanegaritutako prozesua nagiegia zela ikusirik, ikastaro trinkoak, egun osokoak, antolatzen hasi ziren bazterretan. Halere, aipatutako lau/sei ordukoak baztertu gabe.

Hasierako sua epelduz joan zen. Eta norberaren baitako su txikiari eragingo zion hausporik ez zen ikusi gizartean. Zoritxarrez. Bai, ordea, hura itzaltzekorik; geroxeago aipatuko dut hauetakoren bat. Eta euskara ikasteko orduan, motibazio instrumentala joan zen nagusituz: lantegian eskatu izana, lana lortzeko beharrezkotzat jo izana. Hori izan zen, funtsean, euskara ikasteko arrazoi ordudunik; bestelako bame-barneko arrazoirik falta izan ez bazen ere askotan.

Eta ikasle-kopurua jaitsiz zihoan. Gero eta gutxiago ziren. Eta gizatearen aldetik su-mailerik ez, hausporik ez.

Are okerrago. Administrazioaren aldetik diskurtso et-siarazle hau hasi zen plazaratzen: mugimenduak ez du eman, ez du ematen hartarainoko fruiturik gure gizartean euskalduntzeari dagokionez. Ez zen, noski, adierazpen argi, garbi eta esplizitu-esplizitua, baina bai arazoa hurbiletik eta bihotz barrutik bizi zutenek susmatzeko modukoa. Balio al du horrenbeste diru eta horrenbeste ahalegin xahutzea, hain fruitu gutxi lortzeko?

Agian, uste horren argibide dirateke azken urteotan mugimenduaren irakaspen-zentroak jasaten ari diren diru laguntzen murrizketak eta estutzeak.

Horiek horrela, neure konbentzimendu sendo eta bizia agertzen saiatuko naiz. Konbentzimendua; beraz, gauza subjektiboa; beraz, esperimentalki frogatu ezina. Hala ere, lekukotasun bizi izan nahi duena.

1) Mugimenduaren arrakasta txikia ala handia ezin erabaki da estatistiken bidez bakarrik. Ezin erabaki da era mekanizistan. Ezin erabaki da ikuspegi materialistaz. Adibidez, horrenbeste ikastordutan halako maila lortu behar da, esan ohi da. Baina, besteak beste, baieztapen horretarako erabilitako erreferentziak ondo aztertu beharko lirateke. Maila bera ere, zertan datza? Garbi dago, ikasketa unibertsitarioak dituen bati (eta unibertsitateak maila homogeneoak ematen ote ditu?) eta esku-langile bati ezin eska dakiekeela maila bera euskara ikasteko orduan; ezta, beraz, ikasketa-prozesu bera ere.

Esango nuke ere, aipatu neurri eta neurpide horietaz baliatzen diren gehienak mugimenduan irakasle bezala gutxi jardundako jendea izan ohi dela. Beraz, giza ekintza bat era gizatar betean neurtzeko, garantia txiki samarra izan ohi duela

2) *Berria*-n, ekainaren 27an, irakurri dudanak txunditurik utzi nau: «Jaurlaritzak, bere aldetik, emaitza akademikoetan oinarritutako beka sistema ezartzea proposatzen du...». Esan daitekeen gutxienezkoa, proposamen diskriminatorioa dela esan behar da. Noiz pentsatu da Hezkuntzan horrelakorik planteatzea: irakasleei emaitza akademikoen arabera ordaintzea? Noiz pentsatu da Osakidetzan horrelakorik planteatzea: sendagileei eta erizainei gai-

xoen baitan lortutako arrakasten arabera ordaintzea? Noiz pentsatu da Ertzaintzan horrelakorik planteatzea? Noiz pentsatu da Kultura Saileko jendeari euskararen erabilera sustatzean izandako lorpenen arabera ordaintzea?

3) A rrakasta! Barru-barruraino sartu zitzaidan 1982an, Israelen egindako egonaldian, hango «Gau-eskolako» emakume-talde bati bisita egitean, goi-kargudun batek esan ziguna: ezer gutxi ikasiko dute, baina, gutxienik, israeldar kulturen murgiltzeko balio izango diete.

Euskara ikaste/irakastea da, noski, mugimenduaren helburua. Baina ez ote dira kontuan hartu behar horretan maila eta alderdi asko? Ez ote du baliorik Euskal Herrian, israeldar goi-kargudun hark esandakoak. Ez ote gauza nabaria, nahiz eta euskara menderatzera ez iritsi, nahiz eta erdi bidean gelditu, nahiz eta hasiera-hasierako maila batean gelditu, jende askoren jarrera hobetzea lortu izan duela mugimenduak?

Maila askotan ez ezik, modu askotara hartu behar da arrakasta. Estatistikak baliozkoak dira, baina beren mailan. Oso harira datorrit duela gutxi otorinologologo batek esan zidana: gure audiometriak entzumenaren maila bat adierazten du, baina gure aparatuak oso «traketsak» dira, eta gutxi gorabeherakoak. Neurgailu egiazkoagoa da entzumenaren narriadura «bizi» duenaren «bizipena» bera. Guztia estatistikara murriztu nahi izatea —zer esango dut?— unidimentsionalki jokatzeko da; politikan alderdi politiko bakar bati itsu-itsuan lotzea bezala-edo.

2.- Hau behintzat bai: Konfiantza gehiago izan hitzean. Konfiantza gehiago komunikazioan. Sekulako indarra du hitzak harengatik konfiantzarik bada.

Horregatik, gizarteari hitz egin behar zaio euskaldundu dadin. Euskal hiztun bilaka dadin. Telebistan eta irratan —non ez?— publizitate-kanpaina handiak egin ohi ditu Jaurlaritzak autoan segurtasun-uhala erabiltzearen alde, etab. Zergatik ez euskararen alde?

Jakina, jarrera mekanizistatik gabe. Ez da aski, administrazioa euskararen alde dagoela adierazteko, noiz-behinka telebistan euskaraz jardutea. Uste izan ohi den

baino «usaimen» handiagoa izan ohi du jendeak jarrera jatorra eta jarrera artifiziala bereizteko.

Jarrera agresiboko kutsurik gabea izan beharko luke kanpainak. Era baikorrean egina: «zure beharra, zure premia du euskarak» esan beharko litzaioke jendeari.

Azken hitza. Konfiantza gehiago beharko litzateke ikasleen nahiz irakasleen hitzean. Lanean dihardutenen hitzean. Ezin juzgatu da mugimendu osoa bakar batzuen balizko arduragabekeriaz.

Hitzak asko balio du. Gizakia bera adierazten du hitzak. Hitzean konfiantzarik ez bada, gizakiagan ere ez. Administratuengan konfiantzarik ez bada, ezin harritu administratzaileengan ez izateaz.

Estatistikak, berak bakarrik, ez dit balio. Konfiantza handia dut barruak barruntarazten didan errealitatean. Eta barruak esaten dit alfabetatze-euskalduntze mugimenduak fruitu handi eta oparoak eman dituela, ari dela ematen, bai maila indibidualean, bai kolektiboan. Kontseilua- ren antzera, Euskal Herrian Euskaraz-en antzera, Ikastolen antzera, Kilometroak-en antzera eta beste hainbat mugimenduren antzera, beste era batean bada ere, euskararen zuziari Euskal Herriko gizarte osoaren begi aurrean irmo eusten dio mugimenduak. Zuziaren horrelako argi-mutilak galduko balira, euskararekiko «grina» galtzen aterako litzateke. Galera izugarria. Eragile handiak dira horiek.

Hori sumatzeko, fenomenologia hutsera (zentzu etimologikoan) baino zerbait sakonagora jo behar da. Giza ekintzen gizatasuna sumatzeko, azalekora baino sakonagora jo behar da. Alfabetatze-euskalduntze mugimenduaren izaera ezagutzeko, ez da aski azaleko miaketa.

Mugimenduaren beheranzko joerari kontra egiteko, berriz, beharrezkoa da izaera hori barrutik ezagutu eta aintzat hartzea. Edozein kasutan, bidea ez dateke beheranzko joeraren aurrean etsitzea; askoz gutxiago ikasten eta irakasten ari direnei etsiaraztea. Egokiagoa eta zuzenagoa da mugimenduaren eragile izatea, jendeari euskara ikas dezan eraginez eta ikasten ari direnei euskaraz jarduteko ingurumen jatorren aukera eskainiz. ¶



Xabier Isasi

- 1.- Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian aipatu egiten dira helduen euskalduntze-alfabetatzearen maldan behera azal ditzaketen faktoreetako batzuk.

Hizkuntza bat ikastea neketsua da. Bestalde, euskalduntzearen eta alfabetatzearen emaitzak ez dira onak: hasten diren askok ez dute ikasturtea amaitzen; hurrengo urtean gutxiagok jarraitzen; oso gutxi erdiesten dute euskara-maila egokia. Horietako askok, gainera, ikasteari utzita-koan, euskaraz bizitzeko dituzten aukeren urritasunagatik, galdu egiten dute ikasitakoa.

Ez da beste euskaltegiekin eta hizkuntzak irakasten dituzten akademiekin ez harremanik eta ez irakasbideen konparaketarik ere. Euskaltegien mapa bera ere egiteke da oraindik, bakoitzak bere hazkunderari bakarrik begiratzen baitio.

Dirulaguntzen banaketan ere, nahiz eta gero eta txikiagoak izan, badaude oraindik desorekak eta aldeak. Zenbait euskaltegitan ere bada oraindik euskararen kalte-tarako den ideologizaziorik.

Alfabetatzearen eskaintza osotua zehaztu beharra dago, bai eta irakasleen prestakuntza areagotzeko beharra ere. (*Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*, 62. or.)

Oro har, faktore horiek, hizkuntza ikasteko zailtasun-nea, euskaraz bizitzeko dagoen aukeren urritasuna, euskalduntze-alfabetatze sektorearen anabasa, diru laguntzen desorekak eta aldeak eta zenbait euskaltegitan euskararen kalterako ideologizazioa, neurri batean, matrikula-galderen azalgarriak izan daitezke. Baina neurri batean soilik. Euskaltegi-tako irakasleriaren lan egoera, euren prestakuntza eta motibazioa, helduen euskalduntze-alfabetatzearen sakabanaketa eta sustapen murrizta, euskaldun ikasien euskarara gizarteratzeko zailtasunak eta laguntza falta, euskara eta bere hizkuntza komunitatearen kontrako

erasoak, jarrera ideologiko hertsia eta beste zenbait faktore azalgarriak zerrenda daitezke. Iritzia emateko jarritako mugen barruan ezinezkoa da faktore azalgarri horien azalpen xehea egitea.

Esan dezagun, orokorrean, azken urteotan euskalduntze-alfabetatzearen aurkako faktoreen eragina areagotu egin dela. Sinplifikatze aldera bi alderdi nagusitan adieraziko ditut faktore azalgarriak. Batetik, abertzaletasun eta nazionalismoaren kontrako urte luzeetako eraso ideologiko mediatikoa euskalduntze-alfabetatzeraino iritsi da eta badinudi, tamalez, datozen urteetan areagotuko dela. Bestetik, euskalduntze-alfabetatzearen sektorea ez zaie egokitu Euskal Herriko gizartearen aldaketei, gizarte industrialetik zerbitzu gizartera, zerbitzu gizarretik *ezagueraren* gizartera. Neurestez bi faktore multzo horiek dira aldaketa kualitatiboaren erantzuleak. Aldaketa *kualitatiboa* esaten diot.

Kontua da, esandako faktore horiek eraginda, euskalduntze-alfabetatzeak ikasleak galtzeak hizkuntza politikaren ahuleziak agerian uzten dituela. Beste era batera, Euskal Herriko gizartearen aldaketa izan da euskalduntze-alfabetatzearen ahuleziak agerian utzi dituen. *Jakituriaren* gizartean euskarari beste edozein *ezagueraren* estatus maila bera ematen zaio. Batzuek euskaltegiak ingelesa irakasteko akademiak izango bailiran hartu nahi dituzte norbanakoaren borondatea euskararen ikaskuntzarako giltzarri bakarra izango bailitzan. Ahaztu egiten da euskararen kasuan hizkuntza gizarteratu behar dela eta hiztun berria euskararen gizartean txertatu behar dela eta eginkizun horretan lagundu. Euskalduntze-alfabetatzearen helburu estrategikoa norbanakoaren borondateetik harago doa. Norberak euskarra ikastea ez da nahikoa, horrekin batera hiztun berria hizkuntza komunitatean hiztun aktiboa bilakatzeko izan behar du euskalduntze-alfabetatzearen xede nagusia.

- 2.- Aurrenik eta bat, helburua hori izatea, euskal gizartea euskalduntzea alegia. Gero ziurtatzea helburu hori lortzeko politika harako politika dela. Alegia, oinarrizko irizpideek helburua lortzen laguntzen dutela. Hizkuntza-politika eraginkorra EAeko da eta

Lau irizpide edo zutabe nagusitan oinarriturik da Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-politika: demokrazian, ahulenaren aldeko jokabidean, hizkuntza propioari zor zaion aitortzan eta gizarte-ekimenen osagarritasunean. (*Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*, 30. or.)

Pentsatu nahi dut hirugarren printzipioa ez beste guztiak Jaurlaritzak bere politika guztietan ezarriko dituela. Edo Jaurlaritzak ba ote du politikaren bat demokraziari, ahularen alde agertzeari eta gizarte-ekimenen osagarritasuna printzipioei jarraitzen ez dienik? Zergatik hizkuntza-politikaren kasuan azalarazi behar dira politika orori dagozkion irizpide orokorrak?

Neure ustez hizkuntza-politikari datxekien salbuespen irizpide horietan aurki daitezke gure egoeraren hainbat gaitzen sorburua. Hizkuntza-politikaren irizpideek politika hori zikiratu eta antzutu egiten dute. Ea ondo azaltzen dugun adibidearen bitartez. Demagun Informazio eta Komunikazioen Teknologia berriak (IKT) gizarteratzeko planaren irizpideak:

EAEko *Informazio eta Komunikazio Teknologia berriak ezartzeko eta zabaltzeko politika* printzipio demokratikoan, ekintza positiboarenean eta osagarritasunarenean oinarritzen da. Hona printzipio horiek banan-banan azalduta:

A) *Printzipio demokratikoa: Informazio eta Komunikazio Teknologia berriak ezartzeko eta zabaltzeko plangintza* herritar gehienek borondate eta nahietara egokitu behar da. Horretarako, herritarren jarrerak ezagutu eta gehienek nahi eta onartzen duten intentsitate eta erritmoaren arabera moldatu behar da *IKTren ezarpen eta hedapen politika*. Beraz, behar beharrezkoa da adostasuna aldian-aldian berritzea, maila sozialean nahiz politikokoan.

Begien bistakoa da testu horretan *IKTak ezartzeko eta zabaltzeko politika* baino *hizkuntza politika* jari beharko lukeela. Zilegi bekit bihurrikeria hori gure hizkuntza-politikaren alderdi populista antzua agerian uzteko. Populismoaren adibide klasikoa da *herriak nahi duen intentsitate eta erritmoan* esatea eta egitea, hizkuntza-politika herriak egingen bailuen! Horretarako, euskararen berreskurapenerako hizkuntza politikak *osotasun eta jarraikortasunaren*

printzipioei kasu gehiago egin beharko lieke. Euskara edo beste edozein hizkuntza ikastea norbanakoaren ikuspegi-tik antzerako izan badaiteke ere, sozialki arras desberdina dira. Alderdi sozial horrek bereizi behar ditu euskararen eta beste edozein hizkuntzaren ikaskuntza prozesuak. Kalitatearen garaiotan esango genuke euskararen abantaila diferentziala hori dela. Dударик gabe, horrek adierazten du helduen euskalduntze-alfabetatzeak duen garrantzia.

Euskara ikastea prozesu luzea eta nekagarria da. *Euskalduntzeak*, beniz, bi prozesu batera exijitzen ditu: bat, euskara ikastea, eta bi, *euskarara gizarteratzea*; euskara ikasten duena hizkuntza-komunitateko kide bihurtzea. Azken urrats hori eman ezean euskalduntzea burutu gabe geratzen dela esan behar dugu. Ikuspegi horren arabera euskaltegiek euskararen hizkuntza komunitaterako atariak izan behar dute, eta euren funtzioa euskara ondo irakatsiz euskararen gizartean txertatzeko aukerak, trebetasunak eta gaitasunak landu behar ditu. Euskalduntze linguistikoa euskalduntze soziala eta instrumentala erantsi behar zaizkio arrakastatsua izan dadin.

Osootasunaren printzipioaren arabera, euskalduntzearen ikuspegi murrizak, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Unibertsitatea, helduen euskalduntzea, familiarrena eta abar ez dira oso eraginkorrak. Ikuspegi integrala beharko genuke. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, garai batean euskararekiko ardura Lehendakartzari zegokion eta haren bitartez gobernuko sail guztietara iritsi zitekeen. Gaur egun, berriz, sail baten ardura da, Kultura eta Hizkuntza sailarena hain zuzen ere. Alabaina gainontzeko sailetan hizkuntza politika jakinak garatzen dira, Osakidetza, Hezkuntza eta abar. Sakabanaketa horretan, euskararen normalkuntzaren kalterako, gero eta zailagoa da hizkuntza-politika bateratua egitea. Euskalduntze-alfabetatzea euskararen normalkuntzarako jarduera *estrategikoa* da, ez da abagunekoa. Ebaluatzeko ezin erabil daitezke ohiko hizkuntzaren irakaskuntzarako erabiltzen diren irizpideak, euskaltegien funtzioa euskara irakastetik harago doalako. Esandako guztia aintzat hartuko balitz euskalduntze-alfabetatzearen egoerak hobera egingo lukeelakoan nago. ¶



Pello Jauregi

1.- Aitor dezadan, hasteko, nire ikuspegia oso alde batekoa dela, esku artean darabildan informazioa aski mugatua baita. Ezin izango dut, hortaz, Euskal Herri osoaz hitz egin. Gipuzkoako Lasarte-Oria herrian berriki burutu dudan ikerketa hartuko dut ene erantzunaren abiapuntu. Ikerketa horri esker, azken hamar urteotan bertan eman den hizkuntzazko aldaketa aztertzeko aukera izan dut. Datu multzo honetaz baliatuko naiz orain euskalduntze-alfabetatzean zuzenean eragiten duten hainbat aldagai azpimarratze aldera. Datu zehatzak izanik ere, egoera orokorrari buruz zerbait esaten digutelakoan nago.

Aurreneko datu interesgarria demografiak berak ematen digu. Izan ere, hamar urteotan bertako gazteen kopurua 4.400dik 2.512ra pasatu da (gure ikerketan 13 eta 24 urte bitartekoak jo ditugu gaztetzat). Ia erdira jaitsi da multzo hau, sekulakoa!

Beraz, gazte gutxiago, askoz ere gutxiago, eta etorri, euskaradunak datoz oro har. Lasarte-Oriako 10 gaztetik 8k euskara «nahiko ongi» edo «oso ongi» ulertu eta irakurri egiten du, 10etik 7k idazten du «nahiko ongi» edo «oso ongi» euskaraz, eta azkenik, 10etik 6k egiten du hitz euskaraz «nahiko ongi» edo «oso ongi». Etxea eta eskola bi-dezko euskalduntzearen ondoriozkoak dira datu hauek. Oso datu baikorrak berez, nahiz eta helduen euskalduntze-alfabetatze erakundeei lanaren murrizketa ekarri.

Aldatu ez dena, tamalez, etxeetan eta lagunarteetan euskara zein maiztasunez erabiltzen den. Zenbakietara ekarrita honako hau: 10 gaztetik 3k baino ez du normalean euskaraz egiten lagun euskaldunekin. Burua lehengo lepotik. Eutsi egiten zaio baina ez dago zabaltze nabarmenik.

Euskararen aldeko motibaziorik sutsuenak epeldu egin dira. Honako datu hau kasurako: orain hamar urte 10 gaztetik 6k egiten zuen «Euskal Herrian jende guztiak

euskaraz hitz egin beharko lukeelako» iritziaz bat, orain berriz 4k baino ez. Euskara jakin beharraz zuten iritzia ez da, ordea, ordutik hona aldatu.

Aurreko aldagaiak beren artean uztartuz gero ez da zail helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorrak pairatzen duen joera interpretatzen. Batetik, ez dirudi euskararen aldeko bultzagile edo pizgarri aipagarririk gure artera agertu denik, horren lekuko talde informaletan (etxeetan eta lagunarteetan) euskararen erabilerak aurrera nabarmen egin ez izana, bai eta euskararen erabileraren normalizazioari buruzko iritziak epeldu izana ere. Hortaz, eragile berririk ez jendea euskalduntze-alfabetatze mundura erakartzeko. Bestaldetik, euskaldundu eta alfabetatu beharreko lagun-multzoa nabarmen murrizten ari da, euskaldunagoak baitatozkigu belaunaldi berriak. Kontuak horrela, alorraren murrizketa baino ezin dugu espero. Arazoak larrituz etorriko dira gainera.

Eskola bere eginbeharra betetzen ari delako, helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorra murriztea albiste ona da ene ustez. Baina txanponaren beste aldea, alde itsusia alegia, euskarara hurbiltzeko motibazio berri eta indartsurik agertu ez izana da. Horrek zerbaiten berri eman digu. Hots, euskararen biziberritzea, gizarte erabilera alegia, ez dela oraino benetan abiatu, prozesua geldirik dagoela, ez dela gizarte indar ahultsurik antolatatu. Hau dela eta, helduen euskalduntze-alfabetatzeak badu zer hausnartu eta zer hobetu, nahiz eta hausnarketa hau, jakina, berari soilik ez dagokion.

- 2.- Belaunaldi berriak elebidun izango direlako ustea, nago, oso sendoa dela. Euskal Herriko zonalde zabaletan bai bederen. Eskolak egingo du, egiten ari da, lan hori etxekoe-kin batera. Zein tarte gelditzen zaio orduan helduen euskalduntze-alfabetatzeari? Beharrezkoa izango al zaio bere eginbeharra, orain arte bezala, euskal gizarteari? Beharrezkoa bai izango da aurrerantzean ere, baina egun irakas-kuntzari ematen dion erabateko lehentasunak berea egin du. Irakaskuntzari lotutako ildo bati beti ere toki egin beharko badio ere, funtsean eta erabateko lehentasunez eus-

kararen erabilera sustatzeko egitekoari heldu beharko dio aurrerantzean, nire ustez.

Adibide bat emanez hasiko naiz aurreko baieztapena argitzen. Datuen arabera, euskara etxean jaso duten gazte gehien-gehienak euskara txukunaren jabe izatera iristen dira, bai eta kalean ahal dutenean euskaraz aritzeko joera ere erakusten dute. Baina giza-multzo hori oso txikia da, tamalez, Euskal Herria osoki hartuz. Giza-multzo handia, ordea, eta gero eta handiago izango dena gainera, euskaraz aritzeko guztizko gaitasunik ez eta kalean erdaraz jokatzeko joera dutenena da. Honelakoak, oro har, eskolan elebidundu dira, etxean erdara jaso duten bitartean. Giza-multzo hau ikaragarri handituz datorrena da eta euskal hiztun bihurtzea dugu premiarik handienetakoa normalizazioaren ikuspegiaren aldetik. Zalantzak ditut eskolak, hezkuntza formaleko erakunde gisa, egoera hori irauli ote dezakeen. Garbiago ikusten dut, ordea, hezkuntza ez-formaleko erakundeek, eta horien artean kokatu behar dira hain zuzen ere helduen euskalduntze-alfabetatzekoak, duten ahalmena hizkuntzazko erabilera informaleko eremuak lantzeko eta hezkuntza formalak iristerik ez duen tokietara iristeko. Hortaz, baldin eskolak bere emaitzarik hobereena euskarazko gaitasunaren alorrean ematen badu, helduen (eta gazteen) euskalduntze-alfabetatze erakundeek bere onena erabileraren sustapenean eman beharko lukete.

Baina honek ikuspegi aldaketa sakona dakarkie azken hauei, eta hori ez da erraza, bestalde, zeren urte luzeetan irakaskuntzaren inguruan antolatua izan baita beren jarduera. Urteetako inertziak eta tradizioak, nahiz eta egungo egoerari dagoeneko ongi egokitzen ez zaizkion, hortxe diraute temati. Zailtasunak zailtasun, hala ere, ikuspegi aldaketaren ardatzak honako hauek izango lirateke ene ustez. Jada ez litzateke euskarazko ikastaroak antolatzea erakunde hauen egiteko nagusia, baizik eta kultura ikastaro ugari, oparo eta guztiz erakargarriak prestatzea. Euskara, beraz, ez litzateke ikastaroa antolatzeko ardatza eta helburua, kultura jarduerak bideratzeko hizkuntzazko tresna baizik. Jada ez litzateke ikasgela jokalekurik esanguratsuen, baina bai familiak, lagunarteak, elkarteak eta antzeko

gizarte testuinguru biziak. Jada orain arteko uste nagusia, hots, «euskara erabiltzeko ikasi egin behar da lehendabizi», beste honekin trukatu beharko litzateke, hau da, «hizkuntzak erabiltzen direnean hobetzen da erabiltzaileen hizkuntzazko gaitasuna».

Hizkuntzazko erabilera, gizabanako hutsari baino gehiago, taldeari dagokionez gero, talde antolatu eta berezkoak behar ditugu jokaleku gisa gogoan hartu. Lantegietan lankide sareak ditugu, ikastetxeetan ikaskide sareak, herrietan lagunarteak, elkartetan lagun-multzoak, senitartekoak ere hortxe dira. Guneak, harreman sareak, berezko taldeak euskaldundu nahi ditugu, hots, kideen arteko euskarazko erabilera sustatu. Hizkuntzaz jabetzeko gramatika buruz hartzea beharrezko ez denez gero, ez eta bestelako irakaskuntza gidatuaren bidez ikastea ere, erabiltzeko testuinguruak sortu beharko dira. Halakoetan jendeak hizkuntzazko gaitasuna hobetu, handitu eta eguneratu egingo du hizkuntza bera erabiltzen duelako, eta ez nahita eta buruz ikasten duelako. Ildo hau are zuzenagoa da baldin eta lehen aipatu dugun xede-taldea gogoan hartzen badugu, zein baita sistema eskolarrak erdizka elebidundutako gazteen taldea. Honelakoekin normalizazioaren ikuspegitik lan egiten dugunean, erabilera bera da abiapuntu eta bidea.

Esan ere egin dugu, helduen euskalduntze-alfabetatzekoak erabilera erakunde bihurtuta ere, irakaskuntza ildo bati eutsi beharko lioketela. Erabilerarekiko ildo nagusi beharko lukeen bitartean, honako hau bigarren toki apalean kokatuko nuke. Egoera bereziei erantzutea izango luke helburu irakaskuntzazko ildo honek. Hiru halako egoera bururatzen zaizkit: 1) sistema eskolarraren bidez elebiduntzeko aukerarik izan ez dutenena, 2) kanpotik etorritako etorkinena, 3) lanbideari lotuta hizkuntzazko behar tekniko bereziak dituztenena. Egoera gehiago izan daitezke, jakina, baina hauen guztien muinean egiteko «ordezkagarria» ari dira burutzen helduen erakundeak, izan ere sistema eskolarrak sorturiko hutsuneak estaltzen ari dira beraiek. Baina sistema eskolarra hizkuntzaren ikuspegitik normaltzen den neurrian, ordea, funtsik gabe

geldituko da (eta dagoeneko gelditzen ari da toki ugari-tan) egiteko ordezkagarria. Eskolarekiko «osagarritasuna» bilatu beharko litzateke aurrerantzean, zein baita, berriro diogu, hizkuntzazko erabileraren sustapenarena. ¶



Iñaki Lasa

1999.ean Nafarroako AEK-ko arduraduna nintzenean «*lege berri baterantz*» izeneko egitasmoaren barruan antolatutako jardunaldiei esker Felix Marti ezagutzeko aukera izan nuen. Afaltzen ari ginela, gure lana gertutik eta zehaztasunez ezagutu nahi zuela jakinarazi zidan. Arreta handiz entzun zuen AEK eta helduen euskalduntze alfabetatzearen egoeraren berri eta behin postrera iritsi ginean, honela esan zidan: «Oso ongi ikusten dut egiten duzuen lan guztia, baina kontuan hartu heroismoak ezin duela betiko iraun». 1999tik dut esaldi hori bueltaka.

- 1.- Helduen euskalduntze eta alfabetatzearen egoeraz hitz egitea, gure hizkuntzaren normalizazioaren egoeraz hitz egitea da. Izan ere, HEAn suma daitezkeen joerak normalizazioaren egoeraren adierazleak diren beste batzuetan ere suma daitezke. Beraz, HEAn dugun egoera kezkarria euskararen normalizazioaren egoera kezkarria da. Kontua da jakitea zergatik iritsi garen egoera honetara. Azterketa hori egiten denean bi joera nagusi aurkitu ohi dugu: arazoia gizartean gertatutako ustezko aldaketa batzuetan kokatzen dutenak (autokritikari ihes egiteko era polita), edo egoera ulertzeko gakoak orain arteko errealitatearen hutsuneetan kokatzen dituztenak. Gu bigarren horren aldekoak gara eta datozen lerrootan hori azaltzen saiatuko gara.

Euskararen normalizazioaren ikuspuntutik HEAk garrantzi estrategikoa du, are gehiago, nekez euskaldun ditzaiegu belaunaldi berriak paraleloki helduak euskaldunt-

zeco estrategia eraginkorra abiatu ezean. Lau zutabe nagusitan oinarritu behar dugu prozesua: herritarren protagonismoa eta parte-hartze zuzena, sektorearen gaitasuna lanari aurre egin ahal izateko, gizarte eragileen konpromisoa prozesuarekin eta administrazioen lana, diruz laguntzeko, erraztasunak eskaintzeko eta neurriak hartuz eta legeztauz eragiteko. Azter ditzagun bada laurak banan-banan 20 urte hauetan egoera zein izan den jakiteko.

Milaka pertsona pasatu da euskaltegietatik urte hauetan eta neurri handi batez horiexek izan dira sektorearen sostengua. Hori dela eta, ikasleak galtzean sistema dar-dar hasi da. Kantitateak egin du prozesua bideragarri eta ziur aski sektoreak ez du gaitasun errealik izan denak egoki atenditzeko. Hala ere, herritarrek, ikasleek, euskaltegietan aurkitu duten errealitatea kasu askotan tamalgarria izan da, eta gaur egun ere horrelakoa da. Euskara ikastea izugarri garestia da, matrikula altuegiak dira eta norberaren hizkuntza ezagutzeagatik ezer ordaindu beharko ez bage-nu ere, herritarrek uxatzeko moduko matrikula prezioak eskaintzen ditugu. Dena den, matrikulak, oraindik ere, altuagoak ez badira irakasleek derrigorrez onartu behar dituzten lan baldintza eskasei esker da. Hori gutxi balitz, ikasi ahal izateko ikaslea merkatari bihurtu behar dugu eta pegatak, kamisetak, kalimotxoak, zozketak eta abar matrikularekin batera jasotzen ditu. Gainera, enpresen aldetik normalean ez dute batere laguntzarik jasotzen ordutegiak moldatu ahal izateko, besteak beste, administrazioek politika horiek sustatzen ez dituztelako. Hori dena gaintuta, matrikulatzen bada baldintza eskasak aurkituko ditu kasu askotan, egoitza txikiak, hotzak eta abar, nahiz eta azken aldi honetan ahalegin handia egin den inbertsioetan. Bukatzeko esan dezagun EHko leku askotan ez dutela inolako aukerarik euskara ikasteko; eta beste leku batzuetan, administrazioek ezarritako ratio zurrunak direla medio, nekez gaintituko dute lehen urratsa aurreragoko urratsetan ratioa lortzea ezinezkoa baita. Ondorioz, galde-ra da: zergatik matrikulatzen dira oraindik hainbeste herritar? Gure uste apalean motibazioan aurkitu behar dugu arrazoia. Oraindik ere, motibazio integratzaileek jende as-

ko erakartzen dute, baina berez hauskorra denez eta iraungipen data duenez, gero eta txikiagoa da motibazio hori kuantitatiboki eta motibazio praktikoagoak lantzen hasteko ordua iritsi da.

Sektoreari dagokionean, lehenengo eta behin, txapela kendu behar dut euskara irakasleen aurrean. Zinez uste dut beren eskuzabaltasuna txalogarria dela, eta zailtasun guztien aurrean tinko jokatzek duen meritua azpimarratu behar da. Nolanahi ere, pairatu behar izan dituzten lan baldintza urriek sektorea markatu egin dute. Baldintza horiek kasu askotan mugikortasun handia ezarri dute eta «*beteranoak*» euskal kantetan agertzen bazaizkigu ere, sektorearen ezaugarria gehiegizko mugikortasuna da, horrek dituen ondorio latzak kontuan hartuz: prestakuntza falta, egonkortasun falta euskaltegietan, perspektiba historikoaren falta eta, oro har, sektorearen ahulezia. Ondorioz, ezin izan dugu erakarritako herritar oro euskaldundu eta kasu askotan esperientzia txar batek herritar hori erabat galtzea ekarri du. Lan eskerga egin da sektorean irakasleriaren prestakuntzaren arloan eta material didaktikoen sorkuntzan, administrazioen aldetik aparteko laguntzarik jaso ez badute ere. Azterketa hau ezin dugu bukatu azken bost urte hauetan Espainiar Estatuaren aldetik pairatu behar izan dugun jazarpen gupidagabea aipatu gabe. Horren ondorioak gaur egun nabarmenak dira eta sektorearen parte handi bat baldintzatu egiten dute. Horretaz gain, herritarren eragin negatiboa du, HEAREN irudi guztiz okerra ematen baitu.

Gizarte eragileen papera aztertzeko unean oso garbi dugu zer esan. Ez dira inplikatu eta ez dugu inplikatzeko jakin. Helduak euskalduntzea ez da HEAREN arazoa, gizarte osoaren arazoa da. Eta Kontseiluaren eskutik normalizazio planekin hasi arte, gizarte eragileek ez dute normalizazio planen bidea jorratu, salbuespenak salbuespen. Arlo horretan ia dena dago eginkizun.

Administrazioei dagokienez, esan gure herriaren zati-keta administratiboak HEAREN lana dezente zailtzen duela politika desberdinak aplikatzen direlako EHko lurraldeetan. Hala ere, oro har, esan liteke administrazioek ez dute-

la inoiz sinetsi HEaren izaera estrategikoan; eta, ondorioz, oztopoak jarri dituzte eta kasurik hoberenean utzikeriaz jokatu, nahiz eta «diru asko» inbertitzen dutela argudiatuko duten. Administrazioaren zeregina ez da bakarrik diruz laguntzea, baizik eta sektorea babestea eta helduak euskalduntzeari begirako politika eraginkorrak sustatzea, eta hori ez da egin. Ez dute inoiz kontzientziazio kanpaina gainditu eta beren esku dauden beste aukera batzuk ez dituzte erabili. Diru laguntzak beti izan dira eskasak, gaur egun ere horrelakoak dira, sektorea ikuspegi enpresarial hutsez aztertzen dute, emaitzez asko hitz eginez eta gutxi bitartekoez. Maiz ahazten zaie administrazioei zerbitzu publikoa dela HEak eskaintzen duena, eta esan genezake sektore gogaikarria dela administrazioentzat. Belaunaldi berrien hitzezko aldeko apustua egiten dute eta helduak galdutako belaunalditzat jotzen dute. Akats galanta!

- 2.- HEak euskararen normalizazioaren bidean duen izaera estrategikoa bete dadin errotik aldatu behar dugu orain arteko egoera. Arestiko lau zutabeek aldaketa esanguratsuak abiatu behar dituzte beste errealitate batera iritsi nahi badugu. Oker dabil, guztiz erratuta dabil, sektorearen birmoldaketa hutsak beste errealitate bat ekarriko duela pentsatzen duena. Beldur gara administrazioen jokabidea ez ote den hori izango, berriro ere begiak itxiz, askoz ere konplexuagoa den errealitate baten aurrean. Beraz, ekin diezaiogun alternatibak planteatzeari:

Herritarrei euskara ikastearen zama arindu behar diegu. Osasun zerbitzu gehienak dohainik eskuratzen ditugun bezalaxe euskara ikasteagatik ez da ordaindu behar. Ordaintzen diren gauzak gehiago baloratzen direla dioen uste faltsua maiz izan da erabilia azken aldi honetan aurkezteko alternatibarik ez dutenen aldetik. Zerbitzu duina eta malgua jaso behar dute, norberaren etxetik gertu, inguruan txertatua, hasieratik bukaerara prozesua ziurtatuz, EHko txoko guztietara helduz, ratioen mehatxua bazterrean utzita, enpresetan ordutegi malgua eskainiz, barnetegieta joatea erraztuz. Herritarrak kontzientziazteko etengabeko lana egin behar da eta, batez ere, motibazio praktiko edo

instrumentaletan eragiteko politikak martxan jarri behar dira. Horrekin batera, euskaldunok eta euskaltzaleok guztiok bat egin behar dugu mugimendu zabal eta eraginkorra sortuz hizkuntz eskubideen aldeko aldarria erabat gizarteratzeko eta gure gizartearen arlo guztietan kontuan hartua izan dadin. Konpromisoen bidea jorratu behar dugu garbi utziz euskara ikastea eta erabiltzea dela une honetan baliozko konpromiso bakarra. Euskaldunok dugun indar osoa erabili behar dugu ez bakarrik proiektuak sostengatzeko, baizik eta baita euskararen aldeko gizarte konpromisoak eskuratzeko ere. «Bai euskarari» erdaraz aldarrikatzearen garaia atzean utzita, ikastea eta erabiltzea baliozko konpromiso bakarrak direla azpimarratu behar dugu.

Sektoreari dagokionez, kalitatea da hitz gakoa. Erakartzen dugun herritar oro euskalduntzeko helburua aintzat hartu behar dugu, ez dugu erakarritakoa ikasi gabe joaten utzi behar. Argi dago horretarako diru inbertsio handiak egin behar direla, gaur egungo egoerak eragotzi egiten duelako erabat sektorean kalitatearen bidea jorratzea. Sarea hedatu behar da EHko txoko guztietara prozesua hasieratik bukaerara egin daitekeela ziurtatuz. Kalitatezko zerbitzua eskainiko dugula esango dugu EH osoan herritar heldu guztiei euskara ongi, baldintza eta bitarteko duinekin eta azkar ikasteko eskubidea bermatzeko gauza gairenean. Bestalde, lan baldintzen hobekuntza ezin dugu oinarritu orain arteko kontresanean: lan baldintzak hobetzeko matrikula igo behar dugunez ikasleak galduko ditugu, beraz, ikasleak ez galtzeko lan baldintza kaxkarretan aritzera zigorturik egongo gara. Irtenbidea administrazioek euskara dohainik ikasteko eskubidea bermatzea da, eta zerbitzu publikoa eskaintzen duten irakasleen lan baldintza duinak ziurtatzea. Horixe da modu bakarra kontraesana gainditzeko; bestela, beti izango da HEA bazterreko jarduna. Zerbitzu publikoaren baldintzak ziurtatzea administrazioei dagokie, ez irakasleei ezta ikasleei ere.

Gizarte eragileak euskararen normalizazioan inplikatu behar ditugu. Emakumeek pairatzen duten diskriminazioaren gaia emakumeena bakarrik ez den bezalaxe, eus-

kararen normalizazioa ere gizarte osoaren zeregina da eta, ondorioz, konponbidea gizarte osoari dagokio. Normalizazio planak dira aurrera egitea ahalbidetuko diguten tresnak, eta herritarrok, administrazioek eta HEAk indarra batu behar dute gizarte eragileak bide horretara eramateko. Kontrol nahiak bazterrean utzi eta elkarlanari ekiteko garaia da.

Azkenik, administrazioak ditugu. Oro har, esan liteke orain arteko hizkuntz politikak aldatu behar direla HEAren egoera aldatu nahi badugu eta normalizazioan aurrerapauso sendoak eman nahi baditugu, bederen. Borondatean oinarritutako politikak herritarren motibazio integratzaileek mugatzen dituzte; horiek agortzen, apaltzen edo indarra galtzen dutenean herritarrengana iristeko bidea hizkuntza ikasi eta erabiltzearen alde praktikoa da. Baina, horretarako, beste politika batzuk erabili behar dira borondatetik eskakizunetara pasatuz, nahiz eta horrek kostu politikoak sortu. Hizkuntz politikak euskaldunon hizkuntz eskubiak bermatu behar ditu, desoreka soziala den neurian. Eta herritarrek ikusi behar dute gutxi barru euskara ezinbesteko tresna izango dela gure gizartean eta, ondorioz, ikasteko eta erabiltzeko pausoa emango dute. Osakidetzak 1.800 lanpostu elebidun atera izan balitu (borondate politikoaren baitan dagoen erabakia, bestalde) oposizio horietan aurkezteko asmoa duen milaka heldu izango genuke euskaltegietan. Gainera, HEAren sektorea rekin era koordinatuan arituz gero, beharrezko malgutasuna eta prestakuntza eskaini liteke. Gure administrazioek zerbitzuak edo produktuak kontratatzen dituztenean Kontseiluaren «Guk zerbitzua euskaraz» ziurtagiria eskatuko balute, enpresa askotan abiatuko lirateke normalizazio planak eta, ondorioz, heldu asko hurbilduko litzateke euskaltegietara. Ertzaintza, Justizia, Lanbide Heziketa eta abar euskalduntzearen borondate tinkoak milaka herritar hurbilduko litzuke euskarara. Lan mundua normalizazioaren bidean sartzea estrategikoa da eta ez da ezer egiten ari.

Beraz, HEAren sektorea berregokitzearen gezurra agerian utzi behar dugu, hizkuntz politika eraginkor batek HEAren konponbidea aise ekar dezakeelako. Nafarroako

Gobemuak ez ditu helduak euskaldundu nahi eta bere politika kontsekuentea da; are okerrago iruditzen zait euskararen normalizazioa bide onetik ez doala jakin eta elkarkidetzan oinarritutako ekimenei muzin egitea, politika eragin korragoak ez hartzea eta hizkuntz politika keinu politika huts bihurtzea, beti arazoa besteena izango balitz bezala jokatzeko, kasu honetan HEaren arazoa balitz bezala. Elkarkidetzan, diru inbertsioetan eta hizkuntz politika eragin korragoak aplikatzean dago gakoa. Egin dezagun bada!!



Iñaki Martínez de Luna

1.- 1970-1980ko hamarkadetan ilusioa zegoen nonahi. Hala ere, euskalgintzaren gabeziak larriak ziren; nabarmenenak, ezjakituria, uste okerrak eta helburu nahasiak, hain zuzen.

Lehenengo hutsunea, soziolinguistikazko ezjakituria zen. Hizkuntzaren *corpus*-aren erronkari aurretik eutsi zitzaion eta glotodidaktikan ere aurrerapausoak ari ziren ematen; baina hizkuntz *estatus*-aren gorabeherak ia ezezagunak zitzaizkigun.

Uste oker bezain faltsua zen euskara ikasi eta jakitearekin gure hizkuntza salbu egongo zela; hizkuntz berreskura-pena eta normalizazioa berez etorriko zirela. Planteamendu horien sorreran ezjakintasun izugarria zegoen, gaur egun hizkuntz normalkuntzaz ari garen guztiok ondo dakigun bezala.

Gizarte eta hizkuntzaren arteko joko korapilatsuaren gainean zegoen ezagutzarik eza larri horren ondorioz, gizarteak bere buruari ezarri zion hizkuntz jomuga ere okerra zen: norberak ikasteko edo umeek ikas zezaten ahaleginak bai, baina gehiagorik ez zen behar. Eta pentsaera desegoki hori guztiz nagusitu zitzaigun. Akaso eroso zitzaigulako, euskararen erabilera areagotzeko beharrezkoa

zen giza taldeetako hizkuntz ohituren aldaketa, hizkuntza ikastea baina zailago eta konplexuagoa baita.

Euskaltegiak ez ziren salbuespena izan eta beraiek ere hizkuntza ikastearen garrantzia baino ez zuten ia azpimarratzen; praxian ez, bederen. Erabilera bultzatzeko premia ezagutu arren, ez zuten horren aldeko apustu ausartik eta sendorik egiten.

Euskaltegira lehenbiziko aldiz hurbiltzen den ikasle orori oso garbi utzi behar zaio, ezagutza maila batetik aurrera, 'gutxieneko ordu kopuru bat euskaraz jardutearen premia', horri erantzun ezean jai duela azpimarratuz. Ikasten ari den hizkuntza erabiltzea da hizkuntz komunitatean txertatzeko modu bakarra. Halakorik ez da egin, eta euskaraz gaitasun polita lortu arren ikasle gehienek ez dute harreman sare edo giza talde egokirik izan hitz egiten haste-ko. Eta, jakina denez, erabilerarik ezean ikasitakoa erraz eta azkar galtzen da; ondorioz, euskara ikastearekin ikasleek jasan zuten frustrazioa ulergarria da. Alferrik galdu zaizkigu euskara ikasteko prest geneuzkan euskaltzale andanak.

Hamarkada haietako bigarren gabezia uste oker eta inozo bat da: euskararen erabilera soilik norberaren erantzukizuna zela pentsatzea. Hizkuntza ikasi eta erabiltzeko motibazioaren garrantzi ukaezina boluntarismo hutsarekin nahastu zen. Hizkuntzaren gizarte-dimentsioa ia ezezaguna zitzaigun (ikus *Jakin* 128: 134-135), eta hizkuntz motibazioek gehienetan sustrai soziala dutela ez zen kontuan hartu. Ez genekien norberaren motibazioak, askotan, gizartearen inertzia eta aurkako baldintzekin egiten duela topo, motibazioa bera zapuzteraino (ikus *Bat Sozio-linguistika aldizkaria* 18: 39-52).

Gizarte baldintza egokirik sortu ez zelako, euskaltegietan hasi eta euskara ondo ikasi zutenetatik gehienak ez ziren gauza izan normaltasun batekin hizkuntza hori inoiz erabiltzeko. Euskaraz normal hitz egitera iritsi ziren euskaldun berriek estrategia propioak garatu behar izan zituzten (lagun edota bilgune berriak bilatu, giro euskalduneko lan batean hasi...). Ahalegin horiek, gehienetan, norberaren gain gelditzen ziren; gutxitan ziren sozialki sortuak eta planifikatuak.

Ikuspuntu eta xede desegoki horien ondorioz, ahalegin asko antzuak suertatu dira; ez denak, zorionez.

Horregatik guztiagatik, egindako ibilbideaz plazaratu beharreko beste galdera bat, hauxe da: *Zer gertatu da urte hauetan erdaldun asko euskara ikastera joan arren, euskaldundu ez daitezen?*

Bestalde, 70-80ko hamarkadetatik gaurdaino izan diren aldaketei erreparatuta, kale-giroan gertatutakoa da azpimarragarriena. Duela bizpahiru hamarkadetan gure gizarteaz jabetu zen moda zela eta, gizarte ia osoak jo zuen euskararen alde. Orain, aldiz, garai bateko herriaren bultzakementsuaren falta sentitzen da.

Hor dago, hain zuzen, matrikulazioaren jaitsierarengakoa. Baina, gizartea aldiro astintzen duten modak inoiz joko du berriz euskararen alde?

2.- Ez gara hutsetik abiatzen ari. Hamarkada hauetako eskarmentua, ondo erabiliz gero, guztiz emankorra gerta daki-guke.

Euskal gizartea euskalduntzea helburu, lehengo pausoak euskal hiztunen komunitatea trinkotzea eta indartzea izan behar du, ezinbestez. Oraindik bizirik dirauen euskal azpi-gizarteak huts egingo balu, gureak egin du. Hori horrela izan ez dadin, euskal hiztunek egungo bizi-moduaren funtzio gehienetan euskaraz funtzionatu ahal izatea da lehentasuna. Horren ezean, euskal azpi-komunitatea higatuz eta desegituratuz joango da.

Horrez gain, euskal mundu sendo bati eutsiz gero, euskara nahikoa erakargarria izango da erdaldunak ere hurbil daitezen; euskal hiztunen komunitate ahul baterantz, aldiz, inolaz ere ez.

Bigarren erronka, euskaldunduak eta euskalduntzen ari direnak euskal hiztunen komunitate horretan txertatzea da. Horren ezean, euskaldun berri horiek erdarazko harreman sareen baitan jarraituko dute, euskaldundu daitezen egindako ahaleginak alferrikakoak izanik. Hori ez ezik, euskaldun berriak euskal hiztunen komunitatean txertatuz gero, azken hau ederki zabaldu eta indartuko zen.

(Hemen, helduen euskalduntzeaz ari bagara ere, ideia horrek berdin-berdin balio du irakas-sistemaren bidez euskalduntzen zaizkigun egungo neska-mutikoentzat. Helduekin gertatu bezala, ikasitakoa gehienetan ez dute non erabili.)

Gauzak horrela, aurtengo ikasturtean ‘soilik’ 33.990 pertsona euskaltegietan egotea ez da benetako kezka, hasi diren guztietatik euskal hiztunen komunitatean zenbatek bukatuko duten txertatuta baizik.

Arrisku hori ekiditeko errezeta erabakigarri bakarra dago: gure gizartearen baitako erakunde, talde eta elkarteetan —pribatu zein publikoetan— euskararen erabilera ziurtatzea, hori horrela izan dadin gure hizkuntza —gutxienez— erdararen pare jarrita. Eta euskararen presentzia hori bermatzea are errazago (eta merkeago) litzateke egunero-egunero sortzen ari diren erakunde, talde eta elkarte berrietatik abiatuta, eratze unetik bertatik euskara kontuan hartuz.

Soilik horrela hedatuko dira euskararen sareak eta euskal komunitatearen dimentsioa. Horri ekin bitartean, erdararen mundua etengabe ari da hedatzen, euskararena gutxika-gutxika baztertuz.

Akatsak akats, hamarkada hauetan asko aurreratu da, eta ilusiotik galdu duguna eskarmentu, prestakuntza eta *know-how* mailan irabazi dugu. Euskaltzale (boluntario nahiz profesional) trebatu eta prestu ugari dugu. Zinez usate dut ‘*euskararen erabilera bermatuko duen aro berriari*’ ekiteko moduan gaudela. ♪



Joxe Manuel Odriozola

1.- Hizkuntzaren nondik norakoa, mintzaira gizarte-balio den neuman, balio horren izaerak determinatzen du. Determinazio dialektiko hori, gainera, hizkuntzaren balio-mota guztietan gertatzen da. Hala balio pragmatikoaren alorrean, nola balio sinbolikoaren izarian. Hizkuntzak, dakigunez, bereganatua daukan estatus sozialaren arabera eskuratzen du dagokion ospea, eragina eta itzala, eta estatus sozial horri dagozkion komunikazio-eginkizunak beteko ditu gainerako hizkuntzekiko lehian. Ukipen egoeran dagoen hizkuntza baten egoera ezin da inoiz era bakartuan antzeman, lehiakide (euskararen kasuan, galbide eta are heriotza-bide) dituen hizkuntzen estatus-egoera aintzat hartu gabe.

Helduen euskalduntze eta alfabetatze-alorra eskaririk gabeko euskalgintza bihurtzen ari baldin bada, horrek esan nahi du, besteak beste, euskararen gizarte-balioa hutsaren hurrengo dela. Hutsaren hurrengoak, hemen, zera esan nahi du gauzak zehazki esanda: euskararik gabeko bizimoduak ez duela inolako galera sozialik eragiten euskal herritarrengan. Euskarak ez diola baliorik eransten herritarren bizi-mailari eta bizimoduari. Horrela ez balitz, ez pentsa gertatzen ari zaiguna gertatuko litzatekeenik. Ingelesa lekuko: mundu guztiak hizkuntza hori ikasi nahi du, hori ez jakiteak halako eta halako muga eta galerak dakarziolako bere bizi-kalitateari.

Bourdieu-~~ren~~ hizkera lagun, gizartearen kapital material eta sinbolikoak hizkuntzaren baitako izaeran eta funtzioan gauzatzen dira. Hizkuntzaren balioa, horrela, kapital horien transferentzian datza: nolabait esan, hizkuntzaren oinarrian dagoen hitzun-herriak daukan kapital material eta sinbolikoaren araberako balio ekonomikoa, soziala eta kulturala izan ohi du hizkuntzak. Horrek esan nahi du oinarritzat duen hitzun-herriaren botere orokorrean erabakitzen dela hizkuntzaren erabilera-araua, erabilera horren

arrazoiak zernahi izanda ere. Gogora dezagun bidenabar motibazioaren zer-nolakoa identitate nazionalaren muturretik hasita balio sozial instrumental hutseraino doazen aldaeraz osatua egon litekeela hizkuntzaren balio sinbolikoaren eta funtzionalaren arteko *continuum* bat taxuturik.

Euskal herritar helduek ez dute euskararen beharrik eta euskalgegien lana soberan dago. Euskarari eta euskal kulturari gauza berbera gertatzen zaie: bizitzeko dira, baina bizitzak bere bizimodu normala egin dezake halakorik gabe. Eduardo Apodakaren hitzok aski adierazgarriak dira esan nahi dudana adierazteko:

Bizitasunetik egin behar da euskal kulturgintza. Bizitzeko ez badu balio (eta bizitza ez da merkatua soilik, baina merkatua ere bada) ez du balio. Kulturgintza horren balio bakarra «identifikazioa» izatea ez da nahikoa, hori, nolabait, kulturgintza bizigarri bati darion zerbait izan daiteke, baina ez bere eginkizun zuzen bakarra (*Uztaro* 44).

Bizitasunik gabeko hizkuntza dugu euskara, bizitzeko balio ez duen neurrian; zeren balioaren kontzeptua, hemen, ez da hizkuntzaren berezko ezaugarria, baizik eta, gorago esan bezala, komunikazioaren alorrean transferitzen zaion erakarpen-indarra.

Eskolaren bidezko euskara-ikasketa orokortu izana omen da helduen euskalduntze eta alfabetatze sailean daukagun egoera etsigarriaren azalpena. Gezurra galanta, gezurrik badin bada. Halakoen baikorkeriak ez baitu inolako funtsik hezkuntza-sistema formalaren bertatik bertako ezaguera duenarentzat. Izan ere, eredurik euskaldunak (D) ere nekez euskalduntzen du eskola-umea gaurko egitura soziolinguistikoko orokorraren testuinguruan; euskalduna izatea, beti ere, jakina, euskaraz bizitzea baldin bada. Hala izan da orain arte, ahanzturak jota utzi gaituen arte. Eskolaren bidezko euskalduntzeak, harira etorrita, ez du gaitasun komunikatiborik bermatzen, berme hori lortzeko erabilera-erregistro informaletan oinarritutako erabilera-dinamika baita delako gaitasun komunikatiboaren gakoa. Beraz, gezurra galanta.

Euskaldun zaharrak, berriz, zeren zain daude euskaraz alfabetatzeko? Hizkuntzaz eta ideologiaz herri honen

nortasuna ukatzen duen sistemaren konplizitatean diharduten erdal egunkariak alde batera utzi eta noiz hasi behar ote dute euskal prentsa irakurtzen? Esate baterako. Edota daukaten herri-kontzientzia asetzeko nahikoa ote dute lau urtean behin boto nazionalista ematea, edo euskarazko egunkaria indarrez ixten badute haren aldeko manifestaziora joatearekin? Hala ematen du, dakusaguna ikusita. Betiko galdera: non dago zorioneko masa kritiko euskalduna herri hau euskaltasunetik eraikitzen hasteko? Eta, bide batez, bigarrena: euskaltasunetik eraikitzen ez den nazio eraikuntzak zertarako balio du?

- 2.- Garai bateko gau eskolen iturritik datorren euskalgintza-aren alor hau hil ala bizikoa izango litzateke herri hau euskalduntzeko interesik eta estrategiarik balego. Baina ez dago halakorik. Ez hizkuntza politika ofizialaren arduradaukatenen aldetik, ez herri mailako politikagintzan dihardutenen aldetik. Lehendabizikoen baikorkeriak bere burua zuzitzeko darabiltzan argudioen amarruaz ohartzeko ez da behar adimen soziolinguistiko zorrotzik. Horretarako nahikoa da euskararen normalizazioaren parametro nagusizat zer darabilten erreparatzea; hori eginez gero, izan ere, euskaltzalea berehala jabetuko da argudio-andanaren logika amarru baten gainean eraikia dagoela. Labur zurrean esanda, honako hau izan daiteke logika hori: orain honela gaude, eta duela urte batzuk hala geunden, euskararen aldeko hizkuntza politika ofiziala daukagun eremu hirukoitz honetan. Hortaz, aurrerapena nabarmen-nabarmena da, eta datuak eta ehunekoak lekuko. Alabaina, hori erdi-egia izanda ere, erdi-gezur horren gibelean gezur handi bat ezkututzen da: hain zuzen, euskararen normaltze-logika ezin da parametro horietan planteatu, ezin da iraganeko egoera-erferentzian funtsatu, normalizazioaren kontzeptuak euskarak etorkizunean eskuratu behar duen estatus eta erabilera normalduaren erreferentera garamatzalako. Ez atzera, aurrera baizik, normalizazioaren irudikapenak jomuga jakin eta zehatza duenez gero: hau da, euskaraz bizi ahal izatea. Nola gauden jakiteko atzera begira dabilenak ez bide daki, hori eta horrenbestez ze-

hazi zer adierazi nahi duen hitzetik hortzera darabilen normalizazioaren paradigmatik.

Beste alde batetik, literatura soziolinguistikoaren irakaskapen elementalenak gainbegiratze hutsa nahikoa da familia bidezko hizkuntza transmisioaren garrantziaz erreparatzeko. Familiaren hizkuntza politika euskalduntzeko estrategiarik ez duen hizkuntza-politikak badakigu zer atarramentu daukan. Izan ere, hankarik sendoena falta zaio euskalgintzaren halako politika-bideari. Eta hanka horren funtzioan lanean ari den alorra dugu, ezer izatekotan, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea. Haur eta gaztetxoak euskalduntzeko bidegurutzean dagoen familiaren bidea alde batera utzi eta aurrera egin nahi duen hizkuntza-politikak zer egin dezake hizkuntzaren transmisio-gune naturalena den horri erantzun sendorik eman gabe? Zer lor daiteke guraso euskaldunak alfabetatu gabe eta erdaldunak euskalduntzeko bidean abiarazi gabe? Zer egin dezake eskolak etxe barruko euskararen aldeko hizkuntza politika alde batera utzita? Ezer askorik ez. ¶



Erramun Osa

- 1.- Helduen euskalduntze eta alfabetatze eremuan ez da giro. Izan ere, dela HABEren nola baita euskaltegi sareen agerrialdiek, bakoitzak bere ñabardurekin, helduen euskalduntze-alfabetatze sektoreak bizi duen krisi sakona, oinari-oinarrizkoa esango nuke nik, laga dute agerian. Hala ere, sektoreko batzuek hala nabarmendu arren, sektorearen arazo nagusia ez da diru laguntzen moduluan izandako bilakaera soil-soilik, ez eta profesionalek irakaskuntza pribatuko hitzarmenarekin alderatuta ematen dituzten eskola ordu gehigarriak nola baita lansarian diren aldeak. Arazoa askoz sakonagoa da, egiturazkoa. Geroz eta jende gutxiago hurbiltzen da euskaltegietara.

1986-89 epealdira egin beharko genuke atzera helduen euskalduntze-alfabetatzeak halako egoera zaila bizi zein gainbehera antzemateko. Izan ere, ordura arteko joera eten ostean, 1989-96 epealdian (EAEn) sektoreak 6.139 ikasle gehiago irabazi eta 44.855 ikasle erdietsi bazituen ere, 1985-86 ikasturtean euskara ikasten ibilitakoen kopurura ez gara berriro iritsi; alta, 1995-96 2001-02 epealdian 10.862 ikasle gutxiago hurbildu dira euskaltegietara, 95-96 ikasturtean baino %24,22 gutxiago (2002-03 ikasturtean ere jaitsiera izan da, alabaina, lerro hauek idazterakoan ikasturtea oraindik amaitu gabe dagoenez, emaitzak ezin bildu izan dira). Hartara, epealdi horretan sektore publikoak talde orduen %23 galdu ditu. Pribatuen multzoari erreparatuz gero, epealdi berean, talde orduen %23,82 galdu dira. Jaitsiera, baina, 25 urtez azpikoen adin tartean —batez ere— gertatu da (1993-94 ikasturtetik 2001-02ra euskara ikasten ibili eta 25 urte baino gutxiago dituztenak gainbehera etorri dira —hamar mila pertsona baino zerbait gehiago galdu dira adin tarte horretan—); gainerako adin tartetean, beheranzko joera erakutsi arren, matrikulen beherakada ez da horrenbestekoa izan (2001-02 ikasturtean 25 urte baino gehiago zutenak %73,54 izatera iritsi ziren, 1993-94 ikasturtean, aldiz, %53,13 ziren). Jaitsiera ez da EAEn gertatu soil-soilik, Nafarroan eta Iparraldean ere behera egin dute matrikulatutako ikasleen kopuruek.

Esan bezala, euskaltegietara hurbildutakoen adinaren batez bestekoak gora egiten dihardu azken urteetan; era berean, garai batean nagusi ziren ikasle eta langabetuen multzoak arian-arian urritu egin dira eta lanean ari diren geroz eta pertsona gehiago hurbildu dira helduen euskalduntze-alfabetatze sektorerara. Geroz eta ikastaro apalagoak, malguagoak eta egunean zehar nahierara egituratzeko modukoak eskatzen ditu jendeak oro har (izan ere, garai batean ez bezala egungo gizarteetan denbora emateko aukera ugari dago bazterretan, bada, euskara ikasteari denbora are gutxiago eskaintzen zaio edota denbora hori beste era batera antolatzeako askatasuna eskatzen du jendeak), behe urratsetan hasten diren geroz eta jende urriago dago

eta euskalduntze prozesua burutzeko asmoz geroz eta gizaseme gehiago hurbiltzen da bitarte edo goi mailetakoa ikastaroetara.

Bada, ikasleen tipologian eta beharretan aldaketa esanguratsuak ari dira gertatzen. Emaizta akademikoak indartzeko, titulu bat eskuratzeko edota lan merkatuan aukerak ugaltzeko asmoz euskara ikastera zetorren jende multzo andana murriztu da, gizartean bestelako lehentasunak nagusitzen ari direnez edota beharrik antzematen ez dutenez euskara ikastera datorren jendea apaldu egin da. Horri guztiorri, belaunaldi helduek euskararen iraupea gazteagoen esku uztea, euskarazko eredu bilakaera zein eragina (hezkuntza arautuan, euskarazko eredu gora egiten duten heinean, gazteagoak diren ikasleen kopuruak beheranzko joera etengabea erakusten du) nola baita maisu-maistren euskalduntze plangintzak edota sektore publikoa euskalduntzera bideratutako egitasmoek aspaldi goia jo ez ezik gainbehera datozela ere gaineratu beharko genioke. Bada, oro har, eskariaren unadura begi bistakoa da.

Euskarak hiztunak eta erabilera eremuak irabazi ahala gainbehera etorri behar du helduen euskalduntze-alfabetatzeak. Izan ere, euskara normalizatu ahala desagertzeko sortutako langintza da, ez da, bada, irauteko sortua; baina, goiz da oraindik egoera horretara iritsi garela esan eta gainbehera, besterik gabe, horri egokitzeko. Helduen euskalduntze-alfabetatzea azken urteetan 90eko hamarkadan erindakoaren errentatik bizi izan da, ez da egoera berrietara era egokian, bizkorrean eta ikuspegi zabalez moldatu eta, etorkizunean hala segitzen badu, amildegia- ren behera, pisu handiko harri baten tankeran, amiltzen segitzeko txartelak eskuratuak ditu.

- 2.- Arrazoiak asko dira eta eremu desberdinetan egin beharko da lan langintza hau indarberritu nahi bada. Besteren artean, sektoreak, etorkizun hurbilean eta nahikoa azkar, egoera berrira egokitu eta doitu egin behar du, eremu berrietara ez ezik eskari poltsa berrietara ere ikasle bila jo behar du, bere burua espezializatuz, hartarako egitasmoak

beren beregi prestatuz. Baina, aldi berri honek plazaratuko dituen eronkei era egokian erantzun ahal izateko sektorea berrantolatu behar da. Izan ere, dagoen eskaria aintzat euskaltegi gehiegi dago, bada, sareen osagarritasuna, maila guztiak eskaintzea, ikastaroak malgutzea, lortutako maila ziurtatuko duen kanpoko ebaluazio sistema ezarriz zertifikazio sistema abian jartzea (orain arte indarrean egon diren zertifikazio sistemak —hizkuntza eskakizunak, hizkuntza eskolako mailak, euskaltegietako mailak, e.a.— bateratzeko urratsak eginez), materialen eraberritzean nola baita irakasleen formazioan inbertitzea dirateke, besteak beste, berehalakoan abian jarri edota berrikusi beharreko eremuak.

Berrantolaketak sektore publikoa osatzen duten Udal Euskaltegi sarea nola baita Hizkuntza Eskolen bidez egiten ari den eskaintza aintzat hartu beharko luke ezinbestean. Izan ere, sarea egituratzeko, homologatzeko eta normalizatzeko eginahalak egin direnean, ahalik eperik laburrenean hiztunak lortzeko asmoz erritmo bizkorragoko ikastaroak lehenesteko ahaleginak egin direnean, egungo sarearen ondo-ondoan, Hizkuntza Eskolen bidez, diru baliabide publikoak xahutuz, sektorean baztertu nahi diren (ezpada xede berezietarako egitasmoen kasuan) erritmo apalagoko ikastaroak eskainiz, beste eskaintza bat zabaltzeko egiten ari den ahalegina ez da ulertzekoa. Baina, berrantolaketak sektore pribatua ere hartu behar du ezinbestean kontuan, sektore publikoa denean osagarritasunez jokatzu eta hiri handi eta hiriburuetan dagoen gehiegizko euskaltegi sarea eskarira egokituz. Osterantzean, berrantolatu ezean, euskaltegi sare ahula geratuko baita etorkizunean, eronkei erantzuteko ez-gauza eta eguneroko funtzionamendua besterik gabe mantendu ahal izateko bitarteko ugari beharko dituen.

Sarea berrantolatuz eta doituz askatzen diren bitarteko ekonomikoak ondorioztatzen den sarearen normalizazioa indartzeko erabili ez ezik Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ezarpenak, hiztunek euskara balia dezaten aukerak ugaltzeko berariaz sortu den plan estrategiko honen gauzatzeak behar dituen udal mailako zerbitzuak indart-

zeco ere enplegatu beharko genituzke (euskara beharrezko zein baliagarri eta euskara eskuratzeko ahaleginak egingen ari direnei erabiltzeko erraztasunak eskaini behar zaizkie), hartarako HEAko profesionalak birziklatzeko urratsak eginez. Halaber, teknologia berrien erabilera zabalduz, ikasleen autonomia indartzeko eta merkatua bera hedatzeko urratsak egin behar ditugu. Euskararen ikaste prozesuak nola baita eskaintza birdefinitu/egokitu eta euskararen erabilera ahalbidetuko duten egitasmoekin uztartu behar ditugu. Era berean, euskara ikastera hurbiltzen diren pertsona helduen konpromisoa eta ahalegina saritzeko (ezagutzeko) mekanismoak ere ezarri behar ditugu (lortutako mailaren eta asistentziaren arabera beka sistemak, ikasten segitzeko erraztasunak, zertifikazio sistema homologatuak —sarean lortutako mailak titulu bat eskuratzeko aukera ez ezik titulu hori administrazioek onartzeko bidea ere eginez, hartarako, kontrol mekanismoak ezarriz—, e.a.), sektorea sustatzeko zein ezagutzera emateko nola baita herritarrak euskara ikastera bultzatzeko kanpainak, e.a. antolatzea komenigarria ez ezik ezinbestekoa ere badira.

Beraz, eremu asko ditugu eginkizun, erdizka edota hala moduz bideratuta, horiei guztiei heldu beharko genieke, apika, ahalik lasterren, bateratuen eta ondoen, etsipenean erori aurretik, itzuri egiteko moduan egongo ez ginatekeen egungo dinamika indartu aurretik.¶



Mikel Zalbide

Labur-labur ariko naiz, *Jakin*-ek adierazitako lerro-kopurura mugatuz, iritzi-azalpen honetan. Hurbiletik eza gutzen dudan esparrua, irakasle-jendea alfabetatu eta euskalduntzea alegia, izango dut aipagai: hogeitaka urte hauetan ikusi eta ikasi uste dudana eskainiko ditut hortaz, soil-soilik, nire oharrak. Gatozen, beraz, harira. Saia gaitezen, puntuz puntu, *Jakin*-en galdera biei aurrez aurre erantzuten.

- 1.- Irakaskuntza-mundua ez da, oro har, *Jakin*-ek egindako lehenengo galdera horretan kokatzen erraza. Galdera horrek zerbait oker egin dela (edo okertuz joan dela) ematen du aditzera, aldez edo moldez. Baliteke oinarrizko argudio hori beste esparruetarako egokia eta arrazoizkoa izatea. Hezkuntza-mundurako ez da ordea, osorik eta erabat, zuzena. Eskola-munduan zer gertatu den jakin nahi duenari, izan ere, zera azaldu behar zaio lehen-lehenik: pauso handia egin dela zinez, mende-laurden honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle-jendea alfabetatzen eta euskalduntzen. Gatozen, labur beharrez, portzentaje soilletara: 1976-77an hogeitak irakasletik batek zekien euskaraz. Orain (2002ko datuez ari naiz), hirutik bik (%65,3k) badu EGA edo HE2. Alfabetatze- edo euskalduntze-bidean aurrera ari direnak (dagoeneko HE1 eskuratu dutenak, besteak beste) erantsi behar zaizkio, gainera, bi hereneko zifra biritil horri. Ikastetxe publikoak eta pribatuak biltzen ditu, oro har, goiko estatistika horrek. Sektore publikoan (herri-ikas-tetxeetan, irakaskuntzako laguntza-zerbitzuetan, Ikuskaritzan), proportzioak are gorago dabilta: EGA edo HE2 eskuratu dutenak %73 inguru dira hor, dagoeneko; HE1 eskuratu dutenak erantsiz, berriz, %80 pasatxoan dabilta. Hori da beraz, lehenik eta behin, eskola-munduan gertatu dena eta gertatzen ari dena.

Kezka eta beldurra hain barruan iltzaturik daramagularik, euskararen eta euskaldunon etorkizuna dela-eta, ongenuke alderdi positiboak ere aurrez aurre eta bere osoan azaldu eta balioztatzea. Askoren merezimendua da, dudarik gabe, eskola-munduan gertatu den aldakuntza hori: bere burua alfabetatzen edo euskalduntzen ahalegindu diren irakasleek beraiek dute, jakina, lehenengo-lehenengo ezagutza- eta aitormen-eskubidea. Ez dira bakarrak, ordea, esker oneko txaloa jaso beharrekoen artean: ikastetxeetako klaustroak eta zuzendaritzak, hezkuntza-administrazioa bera eta, nola ez, IRALEn zein gainerako euskaltegi-tan (HABE tarteko delarik) urterik urte jardun duten profesionalak ere berariaz aipatu behar dira: horiei guztiei zor zaie, dudarik gabe, irakasmunduaren mende-laurdeneko arrakasta sendoa. Okerrak eta hutsuneak, bide-galtzeak eta eskasiak ez dira noski ibilbide horretan ere falta izan, gizakion langintza guztietan gertatu ohi denez. Lortu den emaitza nagusia baikorra da ordea, batez bestekoan. Baikorra bakarrik ez: zenbaki hutsezko lorpenei dagokienez goren mailakoa ere bai. Munduan (hots, mundu zabaleko hiztun-herri txiki, ahulen artean) ez dago, dakidalarik, gai jakin horretan hemengo bilakaerari aurrea har diezaiokeen saiorik: ez zabalean, ez sakonean eta ez urterik urteko iraupenean. Has gaitezen beraz aitormen horretatik, galdu-irabazien ikuspegia bere osoan bildu nahi badugu.

Egia da hori guztia, baina ez egia bakarra. Badago zertaz baikor izan, baina kezkatzeko motiboak ere hor daude eta ez dira gutxiestekoak. Gorabide hori ukaezina den bezala, honako hau ere egia osoa baita: mende-laurdeneko euskalduntze-saio hori, oraindainoko ibilbideari dagokionez, indargaltzen, ahultzen eta husten ari dela. Motiboak ugariak izango dira, jakina, baina badira bi inondik inora ezin ahaztuzkoak: a) gero eta irakasle gutxiago dago, EAEn, euskaldundu edo alfabetatu gabe; b) gelditzen diren «elbakar» horiek gero eta aurrerago doaz adinean, eta adinkontu horrek badu ondorio nabarmenik L2 eskuratzeko gaitasunean. Faktore bi horiei besterik ere erantsi behar zaio, zenbaiten ustean: gizarte-giroa oro har, ikasketarien janera, «rutinizazioak» dakarkeen nekea eta abar. Horrek

guztiak, ezinbestean, aldaketak dakartza mende-laurdene-ko ibilera luze horretan. Aldaketa ugariak eta, zenbait kasutan, bat-batekoak. Aldaketen ugariak eta bat-batekoak, beriz, ilusioz beteriko amets-gaindegietara baino erazago gainbeherako sentipen etsira eraman gaitzake, hemen eta orain. Ez gara oharpen subjektibo hutsaz ari, etsipen-giro horrezaz dihardugunean. Aski oinarri objektiboa duen gogo-giroaz dihardugu, aitzitik: ezin bukatuzkoa zirudien «harrobia» amaitzen ari da, eta horrek ondorio argiak ditu. Bestelako faktoreak ahaztu gabe ere, hori da gaur-gaurkoz kezka-iturririk eragingarriena. Nor euskaldundurik ez dagoen lekuan nor euskaldundu behar duzu? Bat-batekoari dagokionez badago, bestalde, zer esanik. «Harrobia» agortze hori ez da, inola ere, azken ordukoa. Hezkuntza munduko kontuen berri dakien hainbat eragilek bazekien, aspalditxotik, joera nabarmen horren berri. Kontu berria ez bada ere azeleratu egin da, ordea, azken urteotako joera. Esplikazio luzeagoak (nagusiki koiunturalak) beharko litzuzkeen motiboak direla tarteko, hezkuntza alorreko bezeria klasikoak (irakastordu barneko ikasketari-jendeak) behera egin du nabarmen. Ziklo bat, aldi bat, amaitzen ari da hezkuntza-munduan. Irakaskuntzaren sektore pribatuan bada oraindik urte batzuetarako zeregina; sektore publikoa bere azkenak ematen ari da, ordea.

- 2.- Zer eginik ez dagoela esan nahi al du horrek guztiak? IRALE, euskaltegiak eta gainerako ikasketa-elkarteak alferrik al daude hemendik aurrera, irakasmunduari dagokionez? Ez: inola ere ez. Zeregin handia dago, askok uste duena baino zabal-sakon-luzeagoa, irakasle-jendearen hizkuntz prestakuntzan. Eskua bete lan dago, egon, esparru horretan. Nola liteke (esango du batek baino gehiagok) zer eginik ezaren ezaz hil-kanpaia jo eta, aldi berean, eskua bete lan dagoela esatea? Ez dago hain kontraesan handirik horretan, lehen begi-kolpean besterik badirudi ere. Gatozen mamira. Demagun 30.000 irakasle pasatxo direla une honetan, urte osoz edo partez, EAEko irakaskuntza publikoan zein pribatuan (unibertsitate-maila kontuan hartu gabe hortaz) ari direnak. Demagun, orobat, multzo zabal horretatik 20.000

irakaslek baino gehiagok hezkuntzako HE2, EGA edo baliokideren bat eskuratua duela. Eman dezagun, labur beharrez, hogeita bat mila irakasle euskaldun ari ohi direla EAEko irakas-sisteman, unibertsitate alorra alde batera utzita. Hogeita bat mila irakasle horiek ez al dute aurrerantzean, euskarazko mintzamen-idazmenei dagokienez bereziki, inolako hobekuntza beharrik? Legez, badakigu ezetz. Eta funtzionalki? Agiria eskuratua izateaz gainera ba al dute, benetako hizkuntz gaitasunari dagokionez, zer hobetua? Bai horixe: guzti-guztiek ez noski (hitzez eta idatziz zoragari dakien irakasle askotxo baitago tartean, zorionez), baina hainbatek bai. Hori ez da iritzi pertsonal hutsa, hezkuntza munduan luze-zabal onartutako gertaera jakina baizik. Ikusi besterik ez dago, besteak beste, goi-mailako ikastaroen (bai irakastordu barnekoen eta bai, bereziki, irakastorduz kanpokoak) eskaeraren zabala. Behera ordez gora doaz goi-mailako eskabide horiek, eta ez dago motibo sendorik aldi bateko moda iheskor baten aurrean gaudela uste izateko. Nolanahi ere datu publikoak dira horiek, neurri batean, eta horren berri jakin nahi duenak badu nora jo.

Zergatik da hori horrela? Nola liteke behe-mailako ikastaroen eskaera gainbehera datorren une berean goi-mailako ikastaroak hain gorabidean ari izatea? Gainbeherarena, g utxi-asko, esplikatuz dugu zergatik. Gorabidea azaltzeko, berriz, has gaitezuen errazenetik. Irakas-sisteman diharduten milaka irakasle euskaldun horietatik zenbat dira etxetik euskaldun, eta zenbat euskaldun berri? Lanean eta lanerako euskaldundu diren irakasleak noraino sentitzen dira erabat gai, beren eguneroko lana partez edo osoz euskaraz bideratzeko, bestelako lagungarririk gabe? Euskaldun zahar zein berrien artean zenbat dira euskaldun garbiak, erdaraz bezain erraz euskaraz egiten dutenak kalean eta eskolan? Euskaldun sendo horietatik zenbatek egin izan ditu bere ikasketak (lehen mailakoak, bigarrenekoak eta unibertsitatekoak) euskaraz? Zenbatek jaso du gainera eskola-bide horretan, euskaraz zein erdaraz, curriculumaren euskal dimentsioarekiko informazio zabala, zientzi arauz kontrastaturik? Galdera horiei aski erantzun apala

dagokie, normalean. Gutxi dira izan (gutxienak, seguru asko) baldintza horiek guztiak (hots, inguruko beste eskola-sistematan normal samar bete ohi diren baldintzak) gure artean osorik eta erabat betetzen dituzten irakasleak. Hori ez da beraien inolako tatxa, ez handia eta ez txikia, gure irakas-sistemaren oinarri-oinarrizko ezaugarri kolektiboa baizik. Abiatu den lekutik abiatu delarik EAEko hezkuntza elebiduna, eta eraman duen bidea eraman duela-rik, nekez oso bestelako emaitzarik eskura zitekeen.

Gauza bat da ordea hori onartzea, eta bestea zer egirik (hots, zer hobeturik) ez dagoela esatea. Badago zer hobetua, presarik baina pausarik gabe, gure irakasmunduan. Beharizan horrek adierazten du, hain zuzen, aurrera begirako eginkizunaren ardatz nagusia non dagoen: irakasle euskaldun(du)en (egungoen edota etorkizuneko) goimailako prestakuntza. Etengabeko formazioa lan-mundu modernizatuaren osagai arrunt bihurtu zaigun honetan, euskal irakasmundua ezin liteke salbuespen itxi eta bitxi izan. Euskarazko irakaskuntzak aurrera egingo badu, profesional onak behar ditu. Eta «ontasun» horrek, gainerako osagarriez gainera, hitzez eta idatziz euskaraz jarduteko gaitasun sendoa eskatzen du. Hitz-etorri erraza, hizkuntza ren bame-ondaraz (ohiko gramatika-egiturez eta eba-keraz, doinueraz eta hitz-altxorraz, esapide jatorrez eta itzuli-ka aberatsez) jabeturik izatea, abstrakzio alorreko kontzeptu-lanketarako terminologia teknikoaz ongi horniturik egotea, aldian aldiko beharizanetarako mintzaira-molde egokiez (bertako euskalkiaz zein harreman infomaletarako aldaerez) baliatzen jakitea, literatur tradizioaren ezaguera duina izatea eta bertako kultur edukiak itxura batean eza-gutu eta argi transmititzen jakitea. Neurrigabeko lujoa irudituko zaio hori, agian, bati baino gehiagori. Ez da halakorik, ordea: osasun oneko hiztun-elkarteek halaxe jokatu ohi dute, ahal den guztian, beren irakas-sistemei dagokienez, eta indarberritu nahian ari garenok ez genuke besteak baino zikoitzago izan behar geure burua prestatzeko orduan. Gehigarri horiek mesedegarrizko eta are beharrezko elementuak ditugu. Hala dira, izan, euskal ira-

kaskuntzaren kalitatea (eta ez, maizegi gertatu ohi denez, kantitate huts itsua) baldin badugu gogoan.

Unibertsitate-ikastegiek, IRALEk, euskaltegiek eta gainerako ikasketa-elkarteek zeregin zabala dute goi-mailako prestakuntza-lan horretan. Asmatu egin behar (neurritz eta lekuz, edukiz eta itxuraz), urteetarako eginkizun larri horri ikastaro-emankizun egokiz erantzuten. Ez da batere lan erraza: ez ordu gutxitan eskura liteke halako prestakuntzarik, ez irakastegiak daude hartarako osorik prestatuak, ez bere bideragarritasun ekonomikoa dago aurrez garantizatua eta ez alderik aldeko plangintza zurrunaz (are gutxiago irakasle-jendea hartara behartuz) ekin dakioke bide-berritze horri. Ez da, berriro esan, lan erraz eta sinplea. Ezinezkoa ere ez da, ordea. Parterik garrantzitsuenak (milaka irakasleren gogoaz eta adostasun espresua, beren prestakuntza-bidean aurrera egiteko) badago egon. Goi-mailako ikastaro-eskabideei dagokienez, gogo-adostasun hori urterik urte konfirmaturik ageri da. Bada, beraz, aurrera nondik egin ikusteko abiabururik. Zailena falta da noski: egitea. Ez nolana eitea, gainera, ondo egitea baizik. Asmatuko al dugu?¶